



**Irurako udala**

## **Kaskailu plazako haur-parkea estaltzeari buruzko azalpena Irurako herritarrei**

Irurako guraso multzo batek eskabide bat aurkeztu digu San Migel plazako parkea estaltzeko, Kaskaillu plazako parkea beharrean.

Irurako Udalerako gure gobernu-programaren 8. puntuan, konpromisoa hartu genuen udalerriko haur txikienak erabili ohi duten Kaskaillu plazako parkea estaltzeko. Helburua da parke horretako erabiltzaileei ongizatea ematea, eta, plazak dinamizatuz, udalerriko zonalde guztiak biziberritzea. Horrenbestez, emandako hitza betetzen ari gara.

Zonalde horretan, ez dago eraikin estalirik; bai, ordea, San Migel plazan eta haren inguruetan (Elizaren ataria, txiki-park eta trinkete-frontoia).

Proiektu hori burutzeko, 2016rako udal-aurrekontuetan 90.000 euroko partida onartu da.

San Migel plazako parkea bi udal-eraikinen artean kokatuta dago. Egun, Irurako Ikastolak hartzen ditu eraikin horiek, eta konpromisoa dauka eraikinak datorren 2017ko urtarrilaren 1erako libre uzteko.

Udal-gobernu honen iritziz, une egokia izan liteke zonaldea berrantolatzeko, eraikin horiei erabilera berriak emanda, eta, era berean, bien artean dagoen haur-parkea estaltzeko aukera ere aztertzeko. Gobernuak ez du inongo unetan esan ez duela parkea estaliko.

Horregatik guztiagatik, uste dugu ez dela horrenbestetan aipatutako San Migel plazako parkea estaltzeko unea, zonaldeak etorkizunean izango duen erabilera aztertzen dugunean baizik. Edonola ere, Udalak hitz ematen du azterketa hori egingo duela, eta bizilagunak une oro jakinaren gainean izango dituela.

## **Nota aclaratoria a los/las ciudadanos/as de Irura, sobre el cubrimiento del parque infantil de la plaza Kaskaillu.**

Por parte de un grupo de padres y madres de Irura se nos presenta una petición en el que proponen cubrir el parque de la plaza San Miguel en vez de cubrir el parque de la plaza Kaskaillu.

En nuestro programa de gobierno para el Ayuntamiento de Irura, en el punto 8º, adquirimos el compromiso de cubrir el parque de Kaskaillu plaza, frecuentado por los niños y niñas más pequeños del municipio. Damos más vida a dicha plaza y bienestar a los usuarios del mencionado parque, por lo que estamos cumpliendo con la palabra dada.

En la zona no existe ningún edificio cubierto, y sí en la plaza San Miguel o alrededores como (el Pórtico de la Iglesia, el txiki park y el trinkete-frontón).

Para dicho proyecto, en el presupuesto municipal de 2016 se ha aprobado una partida de 90.000 €.

El parque de la plaza San Miguel está ubicado entre dos edificios municipales, actualmente ocupados por la Ikastola de Irura, que tiene el compromiso de dejar libres ambos edificios para el próximo 1 de enero de 2017.

Es opinión de este gobierno municipal que ese puede ser un buen momento para reorganizar toda la zona, dándoles nuevos usos a dichos edificios y a su vez estudiar el cubrimiento del parque infantil instalado entre ambos. En ningún momento este gobierno ha dicho que no va a cubrir el citado parque.

Por todo esto, creemos que no es el momento de cubrir el tan repetido parque de la plaza San Miguel, hasta estudiar el uso futuro de la zona. En todo caso este Ayuntamiento se compromete a realizar dicho estudio y mantener informados a los vecinos en todo momento.

Irura. 2016ko maiatzaren 27a

